

Hiztegi hirusta

Bi asteren bueltan euskarazko hiru sinonimo hiztegi argitaratu dira, oso antzeko lanak guztiak

Merkatuko lehiaren lekuko da hori, eta zenbait egilek euren arteko «inkomunikazioa» ere aipatu dute gertatutakoa azaltzeko

Euskal hiztegingintzak uzta emankorra izan du asteotan, sinonimoen hiru hiztegi argitaratu dira: UZEIren *Sinonimoen hiztegia*, Jon Urrujulegik Elhuyarren argitaratutako *Sinonimoen Kutxa*. *Sinonimo eta antonimoen hiztegia* eta Bostak Bat lan taldearen *Sinonimoen hiztegia*. *Antonimoduna*. Adorez 8.

Elkarren lanaren berri ez zutela diote Elhuyar eta Bostak Bat taldeek argitaratutako hiztegien arduradunek, edo dagoeneko lana oso aurreratua zutela izan zutela besteen asmoen berri. «UZEIren lanaren berri bagenuen, baina zurrumurru bat baino ez zen, ez genekien haien lanaren epe-rik, ez nondik norakorik...», dio Elhuyarreko hiztegingintza saileko arduradun Alfontso Mujikak. Antzera mintzo da Bostak Bat taldeko kide Patxi Iribarren. UZEIren jardunaren berri oso berandu izan zutela dio, beraiek ordurako hiztegia —1988an beraiek ar-

giritutako lanaren berriztapena da honako hau— oso aurreratua zutela. «Urte biko lana zegoen mahai gainean, eta, orduan, pentsatu genuen aurrera jarraitu behar genuela». Elkarren berri bazutela dio, ordea, UZEIko z u z e n d a r i Alberto Agirre-

zaldegik, «Nire ustez guk, hiru elkarte edo taldeek ondo genekien elkarren berri. Gure kasuan guk urtearen hasieran izan genuen Urrujulegi egiten ari zen lanaren berri... Gu ordurako lanean ari ginen baina ikusi genuen oso zaila bi proiektuak ezkontzea. Orduan guk aurrera segitzea erabaki genuen». Horregatik atera dira egunotan hiru hiztegi merkatura.

Erosleentzat, mesedea; baina egileentzat?

Guztiak bat datoz aniztasun honek erosleei mesede egingo diela aitortzerakoan. «Guk

Hiru liburuak



► **Sinonimoen hiztegia**
UZEI

■ Datu orokorrak

23.285 sinonimodun sarrerak
700 orrialde
3.500 pezetako salneurria (140 libera)
2.000 aleko tirada

Aurki, ahal bada Durangoko azokarako, hiztegia CD-ROMean aurkezteko asmoa dute.



► **Sinonimoen kutxa**
Jon Urrujulegi. Elhuyarek argitaratua

■ Datu orokorrak

21.416 sarrera
276 orrialde
2.500 pezetako salneurria (100 libera)
2.000 aleko tirada
Sinonimo eta antonimodun hiztegia



► **Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna**
Bostak Bat lan taldea


■ Datu orokorrak

36.705 sarrera
732 orrialde
3.800 pezetako salneurria (152 libera)
3.000 aleko tirada
Sinonimo eta antonimodun hiztegia

CD-ROMean ere argitaratu dute hiztegi honen edukia eta opari ematen dute liburuarekin.

Komunikazio premia

■ ■ ■ Hein handi batean era honetako lanak egiten dituzten taldeen arteko komunikazioa handitu egin behar dela diote



GARI GARAIALDE

1988tik ez zen sinonimo hiztegirik argitaratzen euskaraz; asteotan, berriz, horrelako hiru kaleratu dituzte.

Lehendik ere sortuak dira multzoka

Elhuyarreko hiztegingintza saileko arduradun Alfontso Mujikak dioenez, ez da horrelako zerbait jazotzen den lehen aldia. 1977an, esaterako —artearen euskarazko ekoizpena oso urria zenean—, antzeko zerbait gertatu zela dio. «Bi hiztegi argitaratu ziren 1977an, *Euskal hiztegi modernoa*, Xabier Kintanak eta egina, eta *Hiztegi orokor teknika*, Luis Mari Mujikak osatua».

Ordutik, fenomeno hori nahikoa ohikoa izan dela dio Alfontso Mujikak. Hiztegi entziklopedikoak, esaterako, bikiak balira bezala sortu zirela dio, Lur argitaletxea eta Elhuyar garai berean aritu baitziren lanean, eta 1996an, halaber, bi euskara-gaztelania hiztegi sortu zirela diosku, Elhuyarrena eta *Hiztegia 3.000*, Bostak Bat taldeak egina.

lehia berez ona dela ikusten dugu. Lehiak gauzak hobeto egin beharra dakar, ahalegintzeko premia. Hori ez da txarra. Baina arriskua ere bada, elkarri tokia jatearen arriskua. Kasu honetan hori oso argi geratu da», dio Alfontso Mujikak. Ildo berean mintzo da Patxi Iribarren «Oraingoan denok ibiliko gara hestu bezero gutxi dagoelako mundu horretan».

Hala, hein handi batean, era honetako lanak egiten diharduten taldeen arteko komunikazioa handitu egin behar dela diote. «Komunikazioa behar da. Behar bada ez inbertsio txikia behar duten proiektuetan baina proiektu handiagoetan bai», dio Alfontso Mujikak. «Hor proiektuen entitateak markatu beharko lirateke», gaineratu du etorkizuna ahotan hartuta, «eta kasu batzuetan nik uste dut inportantea dela elkarren berri izatea».

Euskaradunen merkatur txikia izaki, antolakuntza baten aldekoa da UZEIko zuzendari Albertso Agirreazaldegi ere. Lehiakortasun basatian murgilduta jarduteak ez dela mesederik ekarriko dio, eta profesionaltasuna irizpide, ondo banatu behar direla egin beharreko lanak. «Bestela hau oihana bat izango da».

Arantxa Iraola
DONOSTIA